

{ datorrena } Iñaki Soto

Irlandarren eta eskoziarren kalkulak «Brexit»-ari begira

G ezurra dirudi datorren astean, ostegunean, *Brexit* izenez ezagutu dugun erreferenduma izango denik. Maila abstraktuan, inork gutxi uka dezake garrantzi handiko gertaera politikoa denik. Britainia Handiak Europar Batasuneko kide izateari utziz gero, benetan «historikoa» izango dela argi dago. Historikoa ez erre-kurtso hiperboliko gisa, baizik eta zentzu historiko her-tsiar. Era batean edo bestean, epe motzean edo luzeago-an, guran eragina izango duen gertaera da. Hau ez da, ez, Amazonian hegotei eragiten dien tximeleta; hau lurrika-ra politikoa da, gure kontinentean gainera. Zer indar izango duen lurrikarak, hori bai, ikusteko dago.

Eguna heldu ahala giroa berotzen hasi da, duela oso gu-txi arte ez baitzen interes handirik sumatzen, ez irletan ez-ta horietatik kanpo ere. Azken egunetan, inkestetan EBtik ateratzearen aldekoek gora egin dute, eztabaida publikoek ez dute joera hori moteldu, “The Sun” egunkariak horren alde egin du... eta David Cameronen Gobernuak, hiruga-ren bideko laboristen lagun-tzarekin, beldurraren eta mehatxuen estrategia areago-tu du. Eskozian egin zuen be-zalaxe. *Brexit*-a gertatuz gero zergen igoera eta zerbitzuen galera aurreikusten dituzte orain. Dirudienek, orain arte estatu-sozialismoa eraikitze-ra dedikatu dira *tory*-ak, eta herritarrak konturatu ez! Ez ahaztu hein handi batean erreferenduma *tory*-en barruko tentsioen eta *blairism* be-zala bataiatutako ideologiaren krisiaren ondorio dela.

IRLANDARRAK ETA ESKOZIARRAK, EPIZENTROTIK OSO GERTU

Honen harira, George Osbornerekin batera Alastair Darling atara da mehatxuak zabaltzera. Eskozian *Project Fear* izenarekin ezagutu zen strategiaren burua izan zen Darling laborista, *Better Together* kanpainan unionismo-aren ordezkari nagusi [horri buruz hau idatzi nuen orriotan duela bost hilabete: <http://goo.gl/Mh87l1>].

Politika konplexua da, izan ere, orain Darlingen bando berean Nicola Sturgeon dago. Eskoziako lehen ministroa telebistan izandako *Brexit*-ari buruzko eztabaida nagusian EBren barruan mantentzearen aldekoen buru ibili zen, Boris Johnsonen aurrean bere maila politiko bikaina erakutsiz, beste behin ere. Independentzia-erreferendu-

mean eskoziarren europarzaletasuna eztabaida publiko-aren parte izan zen, britainiarren eszeptizismoarekin kontrastean. Salmondek emaitza belaunaldi baterako ze-la baieztatu zuen arren, baldintza bat jarri zuen: ez da bi-garren erreferendumik izango baldin eta baldintza ob-jektiboak ez badira aldatzen. Alegia, *Brexit*-ak bigarren independentzia-erreferendum bat egitera bultzatuko li-tuzke eskoziarrak, eta SNPn irabazteko oraindik ere au-rretik lana dutela uste dute.

Irlandar errepublikanoen kasua desberdina da. Sinn Fein oso eurokritikoa da. 2008an irlako eta Europako es-tablishment guztiaren aurka Lisboako Tratatuari buruz-ko erreferenduma irabazi zutela gogora ekarri behar da. *Brexit*-aren kontra egoteko, lurraldetasunaren ikuspun-tutik banaketak ekarriko lituzkeen ondorioak neurtu di-tuzte, alegia, Irlandako iparraren eta hegoaren arteko ha-rremanean nola eragingo lukeen. Irlaren batasuna

Gertaera historikoa izan arren, eskoziar independentistek eta irlandar errepublikanoek, posizio desberdinetatik, erreferenduma beren askapen borroketan urrats taktiko gisa ulertu dute

gerturatu edo aldenduko lukeen pentsatu dute. Agertoki horretan, beren agenda eta epeak azkartu beharko lituz-kete errepublikanoek.

Gertaera historikoa izan arren, eskoziar independen-tistek eta irlandar errepublikanoek, posizio oso desberdi-netatik, erreferenduma beren askapen borroketan urrats taktiko gisa ulertu dute. Beren arerioen ahultasunetatik baino gehiago beren indarretatik sortzen diren agerto-kiak nahiago dituztela esango nuke. Bien kasuan, aldake-ta politikoa nahi duenarentzat nahasmen handiena da-karren agertokia hobea den dogma baztertu dute. Ezkerrean tentazio hori oso indartsua izaten da.

Egin duten kalkulua eztabaidagarria da, jakina. Emai-tza edozein dela, orde, biek duten oinarri ideologiko eta komunitario sendoek aukerak ematen dizkiete egoerari buelta emateko, beren prozesuetan aurrera egiteko. •